

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	PLANO INKLINATU BIDEZKO GARRAIOA	Iraupena	80
		Baldintzatua	
Kodea	UF0784		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Erauzketa-industrietako lurpeko garraio-instalazioetako eragiketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Klabe bidezko trakzio-sistemako garraioa	Iraupena	160
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Garraio bertikala	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0863_2 GARRAIOA KABLE BIDEZKO TRAKZIOKO SISTEMEKIN EGITEA gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Materiala plano inklinatu bidezko erauzketa-makinen bidez garraiatzea funtzionamendu-argibideei eta ezarritako segurtasun-araudiari jarraikiz.

- E11.1 Plano inklinatuetan erabilitako erauzketa-ekipamenduak eta horien ezaugarriak deskribatzea.
- E11.2 Plano inklinatuaren ahalmena kontuan hartuta, garraia daitezkeen bagoi kargatuen eta hutsen kopurua zehaztea.
- E11.3 Bagoiak kroatzerakoan bide inklinatutik bide horizontalera igarotzerakoan hartu beharreko neurriak deskribatzea baita beheko trengunean bagoien ihesei aurre egiteko ezarri beharreko babesak ere.
- E11.4 Abiadura handian jaisten diren bagoiak (askatu direlako edo beste arrazoiengatik) geldiarazteko mekanismoaren funtzionamendua azaltzea.
- E11.5 Segurtasun-gailuak, langak, konportak eta katigagailuak deskribatzea.
- E11.6 Lanaldi-amaierarako egin beharreko eragiketak zerrendatzea ezarritako araudiei jarraikiz.
- E11.7 Garraioa bagoi bat baino gehiagorekin egiten den kasuan, bagoiak kroatzeko eta askatzeko segida zehaztea.
- E11.8 Erauzketa-makinak egikaritzeko prozedurak deskribatzea funtzionamendu-parametro arruntak aipatuz, betiere fabrikatzailearen funtzionamendu-eskuliburuari jarraikiz.
- E11.9 Mineralak edo hondakinak garraiatzeko egin beharreko eragiketa-segida azaltzea (martxan jartzea, posizionatzea, lekualdatzea eta maniobrak) argi adieraziz eragiketa bakoitzari dagozkion eraginkortasun- eta segurtasun-irizpideak.
- E11.10 Pertsonak garraiatzeko eta ekipamendu eta material bereziak garraiatzeko baldintza bereziak adieraztea.
- E11.11 Plano inklinatu bidezko erauzketa-instalazioaren lehen mailako mantentze-eragiketak deskribatzea jasotako argibideei jarraikiz.
- E11.12 Bagoi bat plano inklinatuan errailetik irteten bada erauzketa berrezartzeko egin beharreko eragiketak deskribatzea horretarako ezarritako prozedurei jarraikiz.
- E11.13 Plano inklinatuko erauzketa-makina bidezko garraioko behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:
 - Makina abiarazi aurretik seinaleztapena eta segurtasun-gailuak identifikatzea.
 - Trena osatzen duten unitateak prestatzea segurtasun-krokadurak jarriz.
 - Trena zehaztutako solairuraino igotzea eta jaistea segurtasuneko barne-xedapenetan ezarritako abiaduran.
 - Maniobra-frenoai eta segurtasun-frenoai eragitea.

A2: Materialak lan-frontera garraiatzea erraibakar baten bidez, betiere funtzionamendu-argibideei eta segurtasun-xedapenei jarraikiz.

- E12.1 Lurpeko meataritzan erabilitako erraibakar-motak eta horien osagaiak deskribatzea.
- E12.2 Erabilitako dibidieta-motak eta horien funtzionamendu-moduak identifikatzea.
- E12.3 Garraio-kaiolan piezak kargatzeko erabilitako gailuak (diferentzialak esaterako) ezagutzea.
- E12.4 Gidagailuak, freno-orga eta errodamenak diferentzialekin eta garraio-edukiontziekin (kaiolak, plataformak edo bagoiak) muntatzeko prozedurak deskribatzea ezarritako segidaren arabera.
- E12.5 Aurrera egiteko premien arabera erraibakarra luzatzeko edo laburtzeko egin beharreko urratsak zerrendatzea.
- E12.6 Garraiatu beharreko materialaren arabera arraste-trena osatu behar duten elementuak zehaztea.
- E12.7 Trakzio-kablearen tenkaketa kontrolatzeko sistema identifikatzea.
- E12.8 Erraibakarra egikaritzeko prozedurak deskribatzea funtzionamendu-parametro arruntak aipatuz eta betiere fabrikatzailearen funtzionamendu-eskuliburuari jarraikiz.

EI2.9 Materialak garraiatzeko egin beharreko eragiketa-segida azaltzea (martxan jartzea, posizionatzea, lekualdatzea eta maniobrak) argi adieraziz eragiketa bakoitzari dagozkion eraginkortasun- eta segurtasun-irizpideak.

EI2.10 Trakzio-kablearen kontrol- eta egiaztatze-sistemak deskribatzea.

EI2.11 Errailbakarraren lehen mailako mantentze-eragiketak deskribatzea jasotako argibideei jarraikiz baita lagundu beharreko bigarren mailako mantentze-eragiketak ere.

EI2.12 Errailbakar bidezko garraioiko behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Errailbakarraren martxan jartzearen abisua ematea ekipamenduaren seinaleztapenarekin.
- Lan-fronterainoko ibilbidea egitea.
- Ekipamendua aurretik zehaztutako lekuan uztea deskarga-estazioko operadorearen oharpenei jarraikiz.

Edukiak:

1. Plano inklinatu bidezko mineral- eta material-erazketa.

- Egikaritze- eta garraio-araudia:
 - Meatze-segurtasuneko oinarritzko arauak.
 - Argibide tekniko osagarriak.
 - Segurtasuneko barne-xedapenak.
 - Egikaritze-eskuliburuak.
- Kordada-motak eta aplikazioak.
- Martxan jartzea.
- Zirkulazioa.

2. Erazketa-makinen garraio-eragiketak eta -maniobrak.

- Trenguneetako geldialdiak. Gelditze-mekanismoen jardunak.
- Bagoi bat baino gehiagorekin garraiatzea: bagoiak krokatzea eta askatzea.
- Pieza berezien garraioa.
- Langileen garraioa.
- Bagoiak erraileratzeko eragiketak.
- Solairu-aldaketako eta kaiola zentratzeko eragiketak.
- Lanaldi-amaierako eragiketak.
- Larrialdiak: motak eta jardunak.
- Produkzio-parteak.

3. Errailbakarren ezaugarriak, osagaiak eta funtzionamendua.

- Errailbakarrak: Motak. Ezaugarriak eta funtzionamendu-modua.
- Kableak eta elementu osagarriak. Dibidietak. Tenkaketa-estazioak. Trakzio-kablearen kontrola eta egiaztatpena.
- Freno-orga. Errodamenak. Kaiolak. Ontziak. Plataformak. Bagoiak.
- Bideak. Poleak. Itzulera.
- Elementu osagarriak: Diferentzialak. Polipastoak.
- Ekipamenduen funtzionamendu-eskuliburuak.
- Errailbakarren luzatzeak.
- Martxan jartzea
- Zirkulazioa.

4. Errailbakar bidezko eragiketa.

- Geldialdiak deskarga-estazioetan.
- Materiala kargatzea eta deskargatzea.
- Pieza berezien garraioa.
- Lanaldi-amaierako eragiketak.
- Larrialdiak: motak eta jardunak.
- Produkzio-parteak.
- Lehen mailako mantentze-teknikak.
- Errailbakarren organo mekanikoen, elektrikoaren, oleohidraulikoen eta pneumatikoen funtzionamendua.
- Errailbakarraren maneiua, arriskuak eta prebentzio-neurriak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0783 Garraio bertikala.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Erauzketa-industrietako lurpeko garraio-instalazioetako eragiketak.